EGUNKARIA

BESTELAKOAK



EDURNE KOCH

## Sagardoaren inguruko tertulia Astigarragan

**Astigarragako AEKren hirugarren kultur astearen barruan lehen ekitaldia izango da gaur. Sagardoaren eta sagardotegien inguruko tertulia (eta ez hitzaldia) egingo da Kultur Etxeko areto nagusian, arratsaldeko 19:30etan. Moderatzailea Antton Arka izango da eta hainbat herritar, sagardogile eta aditu ariko dira bertan. Sagardoaren erronka nagusiak zein diren aztertzen saiatuko dira.**